

Buletineko gaiak:

1. Haurtzaro Ikastolaren eguna
 2. Kongoko egoera hobetzen DBH3
 3. Ikasturte amaierako argazkia
- *Etapetako berriak*
 - *Aparteko informazioa*
 - *Eskolaz kanpoko berriak*
 - *Eranskinak*

Berri orokorrak

1.- Haurtzaro Ikastolaren eguna bihar eta etzi

Larunbatean Elorsoron Haurtzaro Dantza Taldearen emanaldi berezia izango dugu. Bertan oraingo dantzari eta aurreko dantzariak parte hartuko dute.

Igandean ere ospakizun eguna izango dugu eta guztia prest edukitzeko kontuan har itzazue mesedez ondorengo oharrak:

1.1.-Ohar garrantzitsua:

Arrazoiren batengatik, bereziki eguraldi txarragatik, Ginkana bertan behera geldituko balitz Webgunean eta Sare Sozialetan argitaratuko dugu albistea 7:15ean. Ordu horretan berririk ez badago, egingo dela ulertuko da.

1.2.-Ginkanan parte hartuko duzuen ikasleentzat

- **Ekarri beharrekoak:** Bizikleta, Kaskoa, Uretan ibiltzeko arropa (Neoprenoa baldin baduzue ekarri), Sandaliak edo uretan ibiltzeko oinetakoak (oinetako zahar batzuk izan daitezke).
 - Eguzkia bada eguzkitako krema emanda etorri behar duzue
- Ginkana 8:00ean hasiko den arren taldeak minuturo aterako dira. Ikasleei geletan adierazi diegu zein ordutan atera behar duten eta 5 minutu lehenago prest egon behar dute irteera lekuan. Ordua errespetatzea eskatzen zaizue.

1.3.-Ginkanan lanean parte hartuko duzuen gurasoentzat

- Txaleko Reflektante bat ekarri behar duzue
- **7:30ean frontoian elkartuko gara**
- Frontoian elkartzean adieraziko zaizue egin beharrekoa



2.- DBH3ko ikasleen eskaera: Kongoko egoera hobetzen lagundu

DBH 3. mailako ikasleak gara eta Geografia eta Historiako arloari dagokionez, 3. ebaluazioko proiektua ALBOAN gobernuz kanpoko erakundearen kanpaina batean parte hartzea da. Helburua mugikor zaharrak edo erabiltzen ez direnak biltzea da, telefono horiek dituzten mineralak birziklatu eta lortutako diruarekin Kongo ekialdean ALBOANek dituen proiektuak laguntzeko.

Zuek ere lagundu dezakezue Kongoko egoera hobetzen. **Ekarri zuen mugikor zaharrak edo erabiltzen ez dituzuenak, ekainaren 1etik 15era, ikastolako idazkaritzara, edo ekainaren 4an, Ikastola egunean, DBH 3. mailako taberna ingurura.** Eskerrik asko zuen laguntzatik!

3.- Ziklo amaierako argazkia

Urtero bezala, ziklo bukaeretako taldeen argazkiak atera ditugu: HH 1, HH 3, LH 2, LH 4, LH 6 eta DBH 2 eta 3. mailetan. Norbaitek argazkia **ez badu nahi** bere gelan dagoen zerrendan adierazi behar du **EKAINAREN 9a** baino lehen. Ezer adierazten ez den kasuan argazkia nahi duzuela ulertuko dugu eta ikasleen bidez jasoko duzue. Prezioa 2 euro izango da eta kontu korrontetik kobratuko zaizue ekaineko errezihoan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako berriak

1.- DBHko ikasleen ekaineko egutegia

DBHko ikasleen egutegian egokitzapen batzuk egin dira ibilaldiak eta azterketak beste data batzuetan kokatzeko. Ondorioz, egutegia ondoren adierazten den modura izango da:

- Ekainaren 16a, ostirala, jai eguna izango dute.
- Ekainaren 19,20 eta 21ean ibilaldia izango dute DBH1.,2. eta 3. mailako ikasleek eta DBH 4. mailakoek ekainaren 19tik 24ra.
- Ekainaren 22an, ikasturteko azken egunean ikasleak 10:00tik 12:00ra etorriko dira ikastolara.

2.- DBH 4. mailakoentzat oharra

Aurtengo ikasturtean DBH 4. Mailakoak diren eta ikastolan beste seniderik ez duten ikasleek gutun bat eraman dute buletin honekin batera.

Gaia: Bazkide ez aktibo izateko aukera.



Eskola kanpoko ekintzen berriak

1.-2017/18 ikasturterako eskolaz kanpoko ekintzen informazioa

Datorren ikasturteko eskolaz kanpoko ekintzen informazioa gaur banatu diegu ikasleei eta familiako txosten bat jasoko duzue. Izen emate orria aldiz ikasle bakoitzak berea eraman du.

Izen emate epea ekainaren 5etik 9ra izango da. **Datorren kurtsorako BI ALDAKETA esanguratsu egingo ditugu (informazio gehiago txostenean):**

- Gehienez 3 ekintzetan eman daiteke izena. Aukeratuetakoa ekintza bat **EUSKAL KUTURA ETA SORMENA** baldin bada, salbuespena egingo da eta **4 ekintzetan izena ematea onartuko da.**
- Onartze prozedura ZOZKETA BIDEZ egingo da eta ez jasotze ordenaren baitan. Herri Musika Txokoko ikastaroen informazioa eranskin modura banatu dizuegu.

Buletinaz aparteko informazioa

1.- Oiartzun Kirol Elkartearen deialdia

Oiartzun Kirol Elkarteak entrenamenduak antolatu ditu datorren ikasturtean futboleant aritu nahi duten ikasleentzat Ugaldetxoko futbol zelaietan. Jarraian dituzue mailak, egunak eta ordutegiak.

LH 5 neskak

Eguna: Ekainak 8

Ordua: 18:30ean

LH 5 mutilak

Eguna: ekainak 7

Ordua: 18:00etan

Buletinaz aparteko eranskinak

- Antzerkian izena emateko eskuorria (LH6-DBH4)

